


## LANALDI

IKASTETXEENTZAT ETA IKASLEENTZAT INTERESEKO INFORMAZIOA DUEN DOKUMENTUA



Antolatzailea:



empleo, emprendizaje, futuro

Laguntzaileak



**PEGASUS** YOUTH  
EMPLOYMENT  
CAMPAIGN

Novia Salcedo Fundazioa

2015-2016

## SALCEDO FUNDAZIOA

**Novia Salcedo Fundazioaren** helburua gazteei gizartean eta lan munduan sartzeko prozesuan laguntza eskaintzea da. Horretarako, pertsonen, enpresen, erakundeen eta erakunde publikoen artean balioak trukatzeko eredu berriak sortzen ditu, eta Lanaldi programa horren adibidea da.

## ZER LORTU NAHI DA EGITASMOAREKIN?

Lanaldi Euskadin gauzatuko den programa da, bigarren hezkuntzako ikasleen eta ikastetxeen zein profesionalen, enpresen eta erakundeen partaidetzara bideratua, boluntariora korporatiboaren bitartez.

Xedea, ikasleei orientazio profesional berritzailea ematea da, goi mailako ikasketak aukeratu aurretik, zenbait tailerren eta lanean ari den profesional batekin izango duten esperientzia praktikoko baten bitartez.

## HELBURUAK

Hezkuntzaren eta trebakuntzaren garrantziari buruzko ikuspegi berria eskaintzea etorkizun profesionalerako alternatibak erakutsiz.

Hezkuntza eta lan eremuen arteko tartea murriztea.

Sormena, berrikuntza, arriskuak hartzea, jarrera proaktiboa, planifikatzeko eta kudeatzeko trebezia... bezalako gaitasunak garatzea.

Lan munduaren aukeretan eta exigentzietan murgiltzea, XXI. mendeko profesional gisa behar den trebakuntzarako prestatuz.

## JARDUERAK

1. **1. ekintza** - Gaitasun profesionalen garapenerako tailerrak, aldaketarako eta ideia berrietarako prestatuta dagoen belaunaldi bati dagozkion trebeziak eta balioak aurrera eramateko asmoz, arriskua eta akatsa ikasketa prozesu barruko zerbait gisa hartuz. Genero bereizketarik gabeko ikasketen aukeraketari buruzko gogoeta bultzatuko da **(NSFk dinamizatua -3 ordu)**

2. **2. ekintza** - Profesionalen ondoan egotea beraien jarduera profesionaleko jardunaldi



batean. Harrera eskaintzen dizuen profesionalak aurrera daramatzan jarduera guztietan hartuko duzue parte, elkarrizketetan, eguneroko atazetan, etab. **(Jardunaldi erdia edo jardunaldi osoa)**

3. **3. ekintza** - Esperientziak trukatzeko tailerrak eta lanbideen negozio ereduaz azterketa. **(NSFk dinamizatua - 2 ordu)**
4. **4. ekintza** - Jardueraren txostena, ikastetxearentzat eta profesionalarentzat. **(Ikastetxeak dinamizatua - 3 ordu).**

## IKASTETXEAK EGIN BEHARREKOA

Ikastetxeak programaren arduradun bat izendatuko du, Lanaldi taldearekin lotura eta solaskide izan dadin. Pertsona hori oso garrantzitsua izango da programa behar bezala gauzatu ahal izateko.

### **PERTSONA, ERREFERENTEA ETA IKASLEEN ANIMATZAILEA IZANGO DA**

Ondoren, programak era egokian funtziona dezan zenbait gako deskribatzen dira:

### **PERTSONA DINAMIZATZAILEAK JARRAITU BEHARREKO PROZESUAREN DEFINIZIOA**

#### **JARRAIPENeko SAIOAK**

- Jarduera programa martxan jarri aurretik, lan saio bat bultzatuko da NSFrekin, banaka edo beste ikastetxe batzuekin batera.
- Lanaldi taldea prest egongo da sor daitezkeen zalantza eta arazo guztiak konpontzeko.

#### **IKASLEEN DINAMIZAZIOA**

- 1. ekintzako (3 ordu) eta 3. ekintzako (2 ordu) tailerren datak ezartzea. Programaren hasieran ezarriko dira, eta bien arteko tartea izango da ikasleek programako jarduera guztiak egiteko izango duten epea.
- Ahal den heinean, 1. ekintza ordenagailuak dituen gela batean egingo da, programan izena ematea eta plataformaren erabileraren ikasketa errazteko.
- Ahal den neurrian, komenigarria da jarduera ikasleentzat egokia den ordutegian gauzatea (baztertu jolastorduak, ostiraletako azken orduak, edo antzekoak). Esperientziak erakutsi digunez, jarduerari buruzko mezu positiboagoa zabaltzen da ikastetxeak balioa ematen badio, ordutegiaren bitartez.
- 2. ekintzan parte hartzeko prozesuan ikasleak koordinatzea. Horrek hau eskatzen du:
  - ✓ Familiek programan parte hartzeko eman beharreko baimenak biltzea (ikusitako eranskina).
  - ✓ Ikasleen parte hartzea eta jarraipena bultzatzea, ekimena eta proaktibitatea sustatuz.
  - ✓ Jarduerak interes falta eragiten badu, horren zergatiak aztertzea.
  - ✓ Ikasleak profesionalarekin arituko diren datak biltzea.
  - ✓ Ikasleen plaza profesionalen aukeraketari buruzko orientazioa ematea.
- 4. ekintza dinamizatzea.

## FAMILIEN DINAMIZAZIOA

Familiak jardueran inplikatzeko funtsezkoa da programak arrakasta izan dezan. Hiru norabidetan bultzatu behar da:

- Jarduerari eta Lanaldin parte hartzeak euren seme-alabentzat duen garrantziari buruzko informazioa ematea. Komunikaziorako bideak presentziazkoak (aukera hoberena), gutunez edo intranetuz izan daitezke.
- Familiak animatzea, profesional gisa parte har dezaten.
- Familiak animatzea, beraien seme-alabekin parte har dezaten, aplikazioaren bitartez plaza aukeratzeko prozesuan.


## JARRAIPENERAKO WEB PLATAFORMAREN KUDEAKETA

[www.lanaldi.es](http://www.lanaldi.es)

Ikastetxeko dinamizatzailleak sartzeko pasahitzak jasoko ditu Lanaldiren web aplikazioa kudeatzeko. Pasahitz horiei esker, une oro bere ikasleek 2. ekintzari dagokionez zein egoeratan dauden jakin ahal izango du. Gainera, jarraipena egitearen eta gazteen eta profesionalen arteko topaketaren datak sartzearen arduraduna izango da.

## BESTE BATZUK

- Lanaldi era akademikoan ebaluatzeko aukera, ikastetxeek baloratu behar duten elementua da.
- Proiektua %100ean diruz lagunduta dago ikastetxeentzat eta ikasleentzat eta, ondorioz, erabateko seriotasuna eskatzen da. Novia Salcedo Fundazioak, Eusko Jaurlaritzarekin adostuta, programatik kanpo utzi ahal izango ditu programarekin beharrezkoa den konpromisoa erakusten ez duten ikastetxeak.



## 2. EKINTZAN PARTE HARTZEA

### PROZEDURA

1.-Programan izena ematea, <http://www.lanaldi.es/jovenes/inscripcion-jovenes/> webgunearen bitartez. Izena zenbat eta lehenago eman, lehenago aukeratu ahal izango duzu plaza profesionala.

Izena emateko orduan jarri arreta berezia puntu hauetan:

1. Harremanetarako datuak: izena, abizenak, NAN eta posta elektronikoa
2. Etorkizunean zein alor profesionaletan aritu nahiko zenukeen
3. Motibazio gutuna

*2. **ekintza** ekintzaile batekin arituz egin nahi baduzu, jakinarazi iezaguzu zure motibazio gutunean.*

2. Lagundu beharreko profesionalaren plaza aukeraketa: <http://www.lanaldi.es/seleccion-de-plazas/>

2.- Baimena sinatzea (aitak/amak/tutoreak) eta ikastetxean entregatzea (ikusi eranskina).

3.-Profesionalarekin harremanetan jarri beharko duzu emango dizugun helbide elektronikoaren bitartez. Lagundu beharreko pertsona aukeratu eta adierazten den informazioa trukatu eta gero:

- Zure burua aurkeztu. Adibidez:
  - Izena
  - Ikastetxea, ikasturtea
  - Lanaldi programan parte hartzeko duzun motibazioa.
  - Jarduerari buruz dituzun itxaropenak
  - Zure planak eta lan alorreko helburuak
  - Zure motibazio gutuna idatzi.

- Jardunaldiko ordutegi zehatzei buruz galdetu
- Enpresaren helbidea, joan-etorria edo elkartzeko tokia antolatzea, bulegotik/lantokitik kanpo geratzea beharrezkoa bada.

**Lanean emango duzun egunerako, gai hauek izan beharko dituzu kontuan:**

- Oinarrizko dokumentazioa:
  - Zure aitak/amak/tutoreak sinatutako baimena. Emaiozu zure ikastetxeko Lanaldi programako arduradunari.
  - Eraman zure NAN zurekin –enpresa batzuetan aurkeztu egin beharko duzu, segurtasun kontuak direla eta.
  - Egin zure anfitrioiari egiteko prestatuta eramane behar dituzun galderei buruzko gogoeta.
- Laneko jardunaldia da eta, ondorioz, horretarako prestatuta joan beharko duzu. Gutxienez oharrak hartzeko materiala eramane beharko duzu.
- Portaera egokia (gogoratu gonbidatua zarela eta, ondorioz, kortesiaz eta errespetuz jardun beharko duzula).
- Jarrera proaktiboa. Saia zaitetz jardunaldia ahalik eta gehien aprobetxatzen.
- Entzute pasiborako jarrera

**ARGAZKIAK**

Programaren **2. ekintzan** parte hartzeak, jardueraren dokumentaziorako eta ondoren materialak argitaratzeko erabiliko diren argazkiak egin daitezkeela berariaz onartzen dela dakar.

Material horiek LOPD izenekoan ezartzen diren irizpideen arabera landuko dira, eta ez dira erabiliko programarenak ez diren helburuetarako.

**ASEGURUA**

Novia Salcedo Fundazioaren Lanaldi programan parte hartzen duten ikasleek, jarduera gauzatzen den bitartean izan daitezkeen gertakariak babesten dituen aseguruia izango dute.

**JARDUNALDIA**

Egun zehatza eta jardueraren ordutegiak parte hartzen duen ikaslearen eta profesionalaren artean definitu beharko dira.

Kontuan izan behar da ordutegi profesionalak ez datozela bat ezinbestean ikastetxeko ordutegiekin, eta, ondorioz, malgutasuna eskatzen dugu, ordutegietara egokitzeko. Komenigarria da bisitaren eguna garaiz zehaztea, azterketak kontuan izanda.


### LANEKO ORIENTAZIOA ETA GENEROA

Generoaren ikuspegitik, Lanaldi programak lan merkatuan zenbait baldintza soziokultural eta ekonomiko daudela aitortzen du eta, ondorioz, programak alderdi hauek landuko ditu:

- Ikasketa-lan aukeraketa ez dezala generoak markatu, norberaren potentzialtasunek baizik.
- Lanbide jakin batzuei lotutako estereotipoak apurtzea, horiek aukeraketa profesionalaren eta pertsonalaren autonomia mugatzen baitute.
- Emakume belaunaldi berrien ekintzaitzarako izpiritua indartzea.
- Edozein bizitza proiekturen barruan erantzunkidetasunaren aldeko hitzarmenaren exijentzia handitzea, familiako bizitzan, batez ere.
- Zenbait lanbidetan eta sektoretan kristalezko sabaiaren eta gizonezkoen eskusibismorako estrategien bidegabekeria kontzientziatzea.

### IKERTU ITZAZU ENPRESA, BERE JARDUERAK, ETA PRESTA ITZAZU GAI HAUEI BURUZKO GALDERAK

1. Enpresarekin, jarduerarekin, bezeroekin, balio ekarpenarekin, haiekin harremanak izateko bideekin, ibilbidearekin, aritzen den sektorearekin, lehiakortasunarekin...



erlazionatutakoak.

2. Profesionalak bere jarduera aurrera daraman sailarekin/prozesuarekin, beste batzuekin duen harremanarekin, jarduera motekin... erlazionatutakoak

3. Profesionalarekin erlazionatutakoak:

- a. Gauzatzen dituen jarduerak.
- b. Egin dituen ikasketekin erlazionatutakoak eta ikasgai garrantzitsuenei eta lagungarrien gertatu zaizkionei buruzkoak.
- c. Norbanakoaren lanaren ikuspuntutik dauden trebezia pertsonalei/profesionalei buruzkoak.



- d. Lankidetzaren/beste batzuekin lan egitearen ikuspuntutik dauden trebezia pertsonalei/profesionalei buruzkoak.
4. Lanpostuaren bilakaerarekin erlazionatuak, izan duena eta epe ertainean izango duena.
  5. Ze trebezia beharko dira etorkizunean lanpostu horretarako?
  6. Ze eragin dute teknologia berriek, sare sozialek, berrikuntzak, globalizazioak, nazioartekotzeak edo hain modan dauden beste batzuek zure lanean?
  7. Ze aholku emango zenidake?
  8. Beste batzuk.

## PROGRAMAREN AMAIERA – 4. EKINTZA

Ikasleek egindako jardueri, jasotako ikasketei, identifikatu dituzten trebezia profesionali... buruzko gogoeta egin beharko dute eta, azkenik, ekintzailtza proiektu bat balitz bezala, berarekin aritu den profesionalaren eguneroko jarduera hobetzeko iradokizun bat edo batzuk egin beharko dituzte (2. ekintzan parte hartu badu). Ideia horrekin zenbait eskumen landu nahi dira, sormena, ekintzaletzarako orientazioa, erantzukizuna, gaitasun digitalak, ahozko edo/eta idatzizko adierazpena, eta baita egiten ikastearen eta norberaren ekimenaren ideia ere.



Parte hartu ez bada, tailerretan jasotako ikasketei buruzko txostena egingo da.

“Aurkeztu beharreko” horren formatua papera edo euskarri digitala (bideoa, argazki muntaketa

edo antzekoa) izango da. Lana bakarka edo taldean egin ahal izango da.

Ikastetxeei iradokizuna egiten zaie, proposamen honen garapenak notaren batean eragina izan dezan.

Horrez gain, gure iritziz oso garrantzitsua da ikasleak profesionalari, jarduera horretan ikasitakoari buruzko Feedback pertsonalagoa itzultzea, profesionalak, programari egindako ekarpenaren garrantzia balora dezaten.

**(Ikastetxeak dinamizatua - 3 ordu).**

## HARREMANETARAKO

Dokumentu honen irakurketatik sor daitezkeen zalantza guztiak argitzeko, honela jar zaitezkete gurekin harremanetan:



[lanaldi@noviasalcedo.es](mailto:lanaldi@noviasalcedo.es)



629 675 335



94 425 59 59

## BAIMEN ESKARIA

\_\_\_\_\_ jaun-andreak,  
\_\_\_\_\_ ikaslearen aita/ama edo tutoreak

ADIERAZTEN DUT:

Baimena ematen diodala nire semeari/alabari Novia Salcedo Fundazioaren LANaldi. Lanetan Blai!!! programan parte har dezan, "IKASTETXEENTZAT ETA IKASLEENTZAT INTERESEKO INFORMAZIOA DUEN DOKUMENTUAN" jakinarazi zaizkigun baldintzen arabera. Nire semeak/alabak \_\_\_\_\_ profesionalarekin egingo du jardunaldia \_\_\_/\_\_\_/\_\_\_ (e)an.

Novia Salcedo Fundazioari eta harrera eskainiko duen enpresari baimena ematen diodala argazkiak egiteko, LANaldi. Lanetan Blai!!! programa hedatzeko helburuetarako soilik.

Badakidala LANaldi programa antolatzeko beharrezkoa izan dela ikaslearen izaera pertsonaleko datu batzuk erabiltzea, izena eta abizenak, emaila eta telefono zenbakia, besteak beste.

Aitortzen dudala Novia Salcedo Fundazioak gazteei lehenbiziko enplegurako bidean lagunduz egiten duen lana eta, ondorioz, gazteriaren, enpleguaren eta ekintzailetzaren alorretan erakundeak bultzatuko dituen beste ekimen interesgarri batzuen berri guri emateko baimena ematen dut.

Novia Salcedo Fundazioa zein nire semeak/alabak ikasten duen ikastetxea ez direla LANaldi programa burutzen ari den bitartean gerta daitekeen ezeren arduradun izango.

Jasotako informazio guztia Euskadiko Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen datuen babesari buruzko arautegiak ezartzen duenaren arabera landuko da.

Sin. \_\_\_\_\_(e)n, \_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_(e)an